

MUGIKORTASUN MAHAIA

Eguna: 2016/12/12

ORDUA: 19:40

BERTARATUAK:		
Manolo Iturrioz	J.M. Santamaria	Aitor Velázquez
Amparo Diaz de Cerio	Arantxa Fernández	Aitor Escalante
Leire Arandia.	Carlos Gonzalez	
	Iñaki Dubreuil	

BERTARATU EZ DIRENAK: Fermin Sukia, Bilduren eta Ordizia Orainen ordezkaria.

Mugikortasun mahaiaren lehenengo bileran erabaki zen bilera guztiak grabatzea, eta beraz, bilera hau grabatu egingo da.

Adierazi dute mahaiko inork ez duela lehenengo bileran adostutako agiririk jaso. Erabaki da Aitor Escalante izango dela lan hori burutuko duena.

Manolo Iturriozek adierazi du duela denbora dezente Endararen eta udal teknikarien azterketak irakurri zituela. Bere ustez agiri gisa biak guztiz baliagarriak dira, lana finkatzeko behar diren oinarritzko irizpideak definitu eta gero. Bere ustez, kasu horietako batean, oinezkoen definizioa, planteamenduan oinarritzkoa dena, nahiko eskasa da; eta bestean, azterketa aurrez ezarritako oinarrietatik abiatzen da, eta mahaia aztertu egin beharko ditu. Lehenengo kasua justifikatzen duen lan-dokumentu bat ekarriko duela adierazi du, hurrengo bileran eztabaidatzeko.

Horrekin batera, esan du berak egindako lehen lan-dokumentua bidaliko diola zuzenean Aitorri. Aurreko bileran mahaiko kideei bidaltzea erabaki zen iradokizun moduan.

Eztabaidatu aurretik mahaiko kideek agiriak aztertu behar dituztela, hori ulertzen da. Beraz, norberak konpromiso hori hartzen du hurrengo bileretarako.

Zozketan atera ziren ordezkoen gaiak nola funtzionatzen duen aztertu da, eta baieztatu da ordezkoak mahaian sartuko direla titularrek baja hartzen badute soilik, ordezkatzeko.

Carlos Gonzalezek esan du falta diren alderdi guztiak (Ordizia Orain eta EHBilduri dagokionez) mahaian egoteko ahalegina egin behar dela.

19:50 inguruan Leire Arandia bertaratu da mahaira.

Iñaki Dubreuilek adierazi du bere ustez Turismoak ordezkari izan behar lukeela mahai honetan kontuan izanik asteko azokak Ordizian duen eragina. Baina lehenik gaur egungo mahaia egonkortzea erabaki da eta gero egon daitezkeen beharrak aztertzea.

Aitor Velazquezek esan du, alde guztiek parte hartzen duten ala ez, horrek definituko duela merkatarien ordezkari gisa izango duten konpromiso maila.

20:00ak inguruan mahaira bertaratu da Jose Miguel Santamaria.

Jose Miguel Santamariak mugikortasun mahaiaren eta foroaren arteko aldea azaldu du. Herriguneko trafikoa eta aparkaleku falta bezalako arazo puntualak mahai honetan aztertu behar dira.

J.M. Santamariak eta Arantxa Fernandezek esan dute mahaia eta foroa bi gauza desberdin direla eta mahai hau arazo puntualetarako sortu zela.

Carlos Gonzalezek ideia hori berretsi du eta mahaiak aldi baterako izan behar duela uste du berehalako gaiak konpontzeko eta seguruena trafikoaren, bide segurtasunaren eta aparkalekuen inguruko zenbait alderdi herritarrei kontsultatuz eman behar litzaioke amaiera. Hala ere, foroak organo zehaztugabea izan behar du, mugikortasun gaiak ukitzen dituzten eragile guztiak bertan dituen, seihileko dinamika duena eta gai honen lerro nagusienak aztertzen dituen.

Manolo Iturriozek adierazi du garrantzitsua Bildu eta Ordizia Orain mahaiaren izatea lortzea dela, baina lortu ala ez, gauza zehatz horiekin lan egiten hasi behar dutela. Iritzi honek mahaiaren babes orokorra jaso du, Aitor Velazquezena izan ezik, eta bere baldintzak berretsi ditu.

Carlos Gonzalezek mahaiaren egoerari buruzko zenbait adierazpen egin ostean, uste du falta diren bi alderdi politikoekin bilera bat egin behar litzatekeela bertan ez izateko arrazoiak azaldu ditzaten, oraingoz ezagutzen duguna komunikabideen bitartez ezagutzen dugulako eta hobe izango delako hitz egitea. Adierazi du horrek mahaiari legimitate handiagoa emango diola, beraiek hemen izateko ahal den guztia egitera behartuta gaudelako eta parte hartzeko konponezinak diren gaiak non dauden argitzeko. Gogorarazi du mahai hau Alkatearen gaitasun exekutibo baten lagapena dela eta zenbat eta izaera parte-hartzaileagoa izan botere handiagoa emango diegula herritarrei.

Mahaiak aho batez erabaki du bertan ez dauden alderdiak (Ordizia Orain eta EHBildu) bilera batera deitzea. Carlos Gonzalezek eman zaio idatziz bilerarako gonbidapen bat egiteko ardurak, ez etorri izanaren arrazoiak entzuteko eta mahaira etortzeko konbentzitzen saiatzeko. Gonbidapen hori Mila Sukiari eta Igor Egureni bidaltzea erabaki da.

Iñaki Dubreuilek, mahaiaren babesarekin, alkateari gogorarazi dio ezohiko izaera duen edozein erabaki edo trafikolari, bide segurtasunari edo aparkalekuei lotutako gaiak aldatzen dituen edozein erabaki jakinarazi dezala eta mahai honetan eztabaida dadila.

Mugikortasun mahaiaren 2. bilera amaitutzat ematen da 20:50ean eta hurrengoa abenduaren 20an izango da 19:30ean. Egun horretan lehen zehaztutako alderdi politikoekin bilera egingo da.